



**MUNGIAKO LARRAMENDI IKASTOLA KOOPERATIBAKO
KONTRATAZIO POLTSAK**

Hitzarmen honen bidez, Larramendi Ikastolako irakasleak eta kudeaketa eta zerbitzuetako langileak bertan lanean hasteko prozesua erregulatzen da. Aldi baterako zerbitzuetan egonkortasuna sustatuko da; hala, pertsona baten izendapenak jarraitutasunik ez duenean, beste arrazoi batengatik beste izendapen bat egin behar bada, bigarren izendapen hori hasieratik aldi baterako lanpostua zuen pertsonari emango zaio.

ZERRENDEN TIPOLOGIA

Interesdunak izena eman ahal izateko bi motatako zerrendak egongo dira:

1.- Iraupen luzeko postuak betetzeko zerrendak (aurrerantzean, lanpostu hutsen zerrenda), honako kasu hauetarako:

a) Lanpostu hutsak.

b) Hiru hileko edo gehiagoko ordezkapena aurreikusten den kasuetarako erreserbatutako lanpostuak.

c) Hasierako izendapena hiru hilekoa edo gehiagokoa duten aldi baterako izendapenak.

2.- Ordezkapenen eta behin-behineko lanpostuen zerrenda (aurrerantzean, ordezkapenen zerrenda), gainerako kasuetarako.



ZERRENDAK EGITEKO IRIZPIDEA

1.- Aldi baterako kontratazio-zerrenda guztiak (lanpostu hutsen zerrendak nahiz ordezkapenenak) osatzeko aplikatutako lehentasun-ordena hau izango da:

Lehen mailako lehentasuneko zerrendak. Egindako azken hautapen-prozesuan parte hartu duten eta kasuan kasuko lanposturako baldintzak betetzen dituzten pertsonak. Zerrenda horietan azken hautapen-prozesuan emandako puntuen batura jasoko da.

Bigarren mailako lehentasuneko zerrendak. Aurreko atalean sartzen ez diren pertsonak. Langile hauek egindako azken hautapen-prozesuko baremo bera erabiliz ordenatuko dira.

Bi motetako zerrendetarako, beharrezkoa da aldi baterako kontratazioen zerrendetan izena ematea. Lehen mailako lehentasuneko zerrendak amaitzen diren unean, bigarren mailako lehentasuneko zerrendetako kontratazioa hasiko da.

2.- Puntuazio-berdinketa: puntu-berdinketa dagoenean, azken hautapen-prozesuan kasu hauetarako ezarritako irizpideei jarraituko zaie.

ZERRENDETAKO IZEN-EMATEA ETA PUBLIZITATEA, ETA ZERRENDEN INDARRALDIAREN HASIERA

1.- Eskaeren aurkezpena eta ondorengo jakinarazpenak.



Ikastegiko idazkaritzan egingo da, eskuragarri egongo den eredia beteta (I. eranskina). Eskaeran agertzen diren helbidea, telefonoak eta helbide elektronikoa baliozkotzat joko dira jakinarazpenetarako. Eskatzaileari dagokio Larramendi Ikastolari jakinaraztea datu horietan egon daitekeen edozein aldaketa edo eskaeran sartutako datuen idazketa okerra.

Eskaera betetzeak bertan agertzen diren datu guztiak «Lanpostuen hautaketa eta hornikuntza» izeneko fitxategian sartzeko berariazko baimena ematea dakar. Fitxategi horren erabilerak eta funtzionamenduak honako lege hauei jarraituko die: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa; eta 2/2004 Legea, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa. Fitxategi horren arduraduna Larramendi Ikastola da, eta bere aurrean datuak ikusteko, zuzentzeko, haiei aurka egiteko eta baliogabetzeko eskubideak erabil daitezke. Baimen horrek datuak hautaketarako erabiltzeko aukera ematen du, baita dagozkion erregistroetan egiaztatzekoa ere, eskaeraren datuen eta aurkeztutako dokumentazioaren zehaztasuna ziurtatze aldera.

2.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

Hemen erregulatzen diren zerrendetan parte hartzeko, hautagaiek kategoria/lanpostu bakoitzeko deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Hautagaiek baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte kontratazio-zerrendetan onartuak izateko eskaerak aurkezteko epearen azken egunean, eta baldintzak betetzen jarraitu beharko dute zerrendan jarraitu ahal izateko.



Aldi baterako kontratazio-zerrendak osatzen dituzten pertsonak izena eman duten kategorietako lanpostuei dagozkien funtzioak egiteko beharrezko gaitasuna izan behar dute, kontratazioaren unean, kontratazio-aldi osoan eta kontratazio-zerrenden indarraldiak irauten duen bitartean.

3.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa dagokion hautaketa-deialdian adierazitakoa izango da; deialdi horren bidez irekiko dira aldi baterako kontratazio-zerrendak eta bertan zehaztuko da, halaber, zerrendetan izena emateko epea. Ez da beharrezkoa izango lehen mailako lehentasuneko zerrendetako hautagaiek dokumentazio guztia berriz aurkeztea.

7.- Publizitatea eta zerrenden indarraldiaren hasiera.

Zerrenda ordenatuak eta haiek osatzen dituzten pertsonak Larramendi Ikastolako iragarki-tauletan argitaratuko dira, baita zerrendetan egiten diren eguneratzeak ere. Kontratazioa egiteko, zerrendak tauletan argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

UKO EGITEA

1.- Deialdia baino lehenagoko borondatezko ukoaren onarpena.



Izendapen-eskaintza bat egin aurretik, borondatezko ukoa eskatu ahal izango da.

2.- Izendapen-eskaerei uko egitea.

Larramendi Ikastolako kontratazio-zerrendetan aktibo egoteko, ukoa onartu ahal izango da, baldin eta izendapen-eskaintza egiteko unean honako justifikazio hauetakoren bat argudiatzen bada eta justifikazio hori egiaztatzeko dokumentazioa aurkezten bada, 10 egun naturaleko epean:

- a) Hautagaia beste ikastetxe, enpresa edo administrazio publiko batean lanean aritzea.
- b) Kontratazio-eskaintza egitean hautagaia indarreko legeriak ezartzen dituen ezkondu ondorengo egunetan egotea, edo kontratazioa aldi horren barnean hasia. Tratamendu bera erabiliko da ezkontzarik gabeko bateratzeetan, baldin eta bizikidetzaz-ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badira; aldia bera izango da, ziurtagiriaren datatik kontatzen hasita.
- c) Hautagaia aldi baterako ezintasun-egoeran egotea; kasu horretan, ez zaio beste izendapenik eskainiko alta behar bezala frogatuta jakinarazten duen arte, horretarako dagokion dokumentua aurkeztuz.
- d) Hautagaia indarreko legerian jasotako erditzeagatik baimenean ezartzen diren erditu aurreko edo ondorengo asteetan egotea. Adopzioen kasuan tratamendu bera aplikatuko da eta uko egiteko justifikazio gisa onartuko da.
- e) Hautagaiak erakunde ofizial baten beka bat edukitzea.



JUSTIFIKAZIOAREN ARRAZOIA AMAITU ONDOREN LANGILEEN ZERRENDETAN BERRAKTIBATZEA

1.- Egoera hauetako batean dauden langileak berraktibatu egin beharko dira kontratazio-zerrendetan:

a) Lanpostu hutsen zerrendaren edo ordezkapenen zerrendaren bidez emandako izendapen bat amaitzea. Berraktibatzea Larramendi Ikastolako Kontratazio Sailak egingo du ofizialki.

b) Lanpostu hutsen zerrendako kontratazio-eskaintzari uko egiteko justifikazioa edo ordezkapenen zerrendako eskaintza bati uko egiteko justifikazioa aurkeztuta izatea. Berraktibatzea justifikazioaren arrazoia amaitu ondorengo 10 egun balioduneko epean eskatu behar da, eta Larramendi Ikastolako Kontratazio Sailera zuzendu behar da.

3.- Atal honetako berraktibatzeke epeak amaitzen badira eta pertsona interesdunak halakorik eskatu ez badu, berraktibatzea eskatu izan balu eskaini izango litzaizkiokeen izendapenak galdu egingo ditu. Berraktibatzeke epea igaro ondoren ere, berraktibatzea eskatu ahal izango da oraindik.

KANPORAKETAK



1.- Zerrendako kontratazio-eskaintza bati uko egiten bazaio, horretarako ezarritako epean dagokion justifikazioa egiaztatu gabe (dagozkion dokumentuak aurkeztuta), edo indarrean dagoen izendapen bati uko egiten bazaio, hautagaia dagokion kategoriako zerrendatik kanporatuko da sei hilez. Kasu bakoitzean dagokion zerrendatik bakarrik kanporatuko da (lanpostu hutsen zerrenda edo ordezkapenen zerrenda), baldin eta plazari lehen aldiz egiten badio uko. Bigarren aldiz indarreko izendapen bati uko egiten bazaio, edo bigarren aldiz kontratazio-eskaintza bati uko egiten bazaio, zegokion epearen barnean horretarako justifikaziorik eman gabe, hautagaia dagokion zerrendatik kanpo geldituko da urtebetez. Kasu bakoitzean dagokion zerrendatik bakarrik kanporatuko da (lanpostu hutsen zerrenda edo ordezkapenen zerrenda). Dagokion epean behar bezala justifikatu gabe kontratazio-eskaintza bati hirugarren aldiz uko eginez gero edo indarreko izendapen bati hirugarren aldiz uko eginez gero, hautagaia dagokion kategoriako lanpostu hutsen zerrendatik edo ordezkapenen zerrendatik kanpo geldituko da behin betiko.

Horrez gain, hiru aldiz kontratazio-eskaintza egin eta lokalizatu ezin izan diren pertsona guztiak kontratazio-zerrendetatik kanpo geldituko dira aurrez ezarritako epeetan. Kanporaketa hori aplikatzeko, kategoria berean eta zerrenda mota berean (lanpostu hutsen zerrenda edo ordezkapenen zerrenda) egin diren eta denboran bereizita gertatu diren eskaintzak izan beharko dute.

Larramendi Ikastolak kanporatutako hautagaiei deitzeko eskubidea izango du, kategoria/lanpostu funtzional zehatz baten indarreko zerrenda agortzen denean eta laguntza-behar bat nahitaez eta berehala bete behar denean.



LANPOSTU HUTSEN ZERRENDAKO LANPOSTUAK ETA ERRESERBATUTAKOAK BETETZEKO EGOERA ESPEZIFIKOAK

1.- Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriek hala eskatzen dutenean, hautapen- prozesu bat egingo da funtzio espezifikoak gauzatzeko ezagutza teknikoak dituzten lanpostu hutsen zerrendako pertsonen artean. Horretarako, Hautaketa Batzorde bat eratuko da.

Lanposturako pertsona egokiena aukeratu ondoren, proba-aldi bat gainditu beharko du, eskatu zaizkion ezagutzak badituela egiaztatzeko. Aldi hori gainditu ezean, kontratua eten egingo da.

2.- Aurreko puntuan zehaztutako prozesuan parte hartzen duten lanpostu hutsen zerrendako pertsonetako batek ere ezagutza tekniko egokiak ez baditu, deialdi bidezko hautapen-prozesu bat egin ahal izango da.

ZERRENDEN INDARRALDIA

1.- Zerrenda bakoitza Larramendi Ikastolako tauletan behin-behineko zerrendak argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean.

2.- Azken hautapen-prozesuan deialdirik izan ez duten eta berriz irekiko ez diren kategoriei/lanpostuei dagozkien zerrendetan lehengo ordenari eta puntuazioei eutsiko zaie, profilak eguneratzeko aukerarekin. Berriz ireki ondoren, zerrendak ezarritako baremo-irizpideen arabera ordenatuko dira.



KONTRATAZIO-ZERRENDETAN PARTE HARTZEKO INSTANTZIA

DATU

PERTSONALAK

Izen-deiturak	
NAN/IFZ	
Herria	
Kalea	
PK	
Tel.	
Helb. elektronikoa	

ZERRENDA MOTA

Lanpostu hutsen zerrenda

Ordezkapenen zerrendak



KATEGORIAK - ESPEZIALITATEAK

--

ERANTSITAKO DOKUMENTUAK

--

Mungian, 2015eko otsailaren 19an